

Jarraipena eta berritzea EAJn

EAJren zuzendaritza berritzeko prozesua azken txanpan sartu da. Karta gehienak mahaian gainean daude, egun-argitan. Josu Jon Imaz Bostongo bidea hartzeko prest dago eta Inigo Urkullu haren lekukoa hartzeko prest, BBBko buru eta EBBko bozeramaile izatetik, EBBko lehendakari izatera pasatuko da abenduaren 2tik aurrera. Urkullu da hautagai bakarra bigarren itzulian. Beraz, ez da errepikatuko duela lau urteko lehia. Ez EBBko buruaren aukeraketan, ez gainerako burukideen aukeraketan. Lau urte hauetan alderdi zatikatuaren irudia eman dutela jabeturik, zuzentzen saiatzen ari dira prozesu honen bidez. Ondorioz, adostutako lehendakaria izateaz gain aurpegi berri askoko zuzendaritza izango dute jeltzaiek. Aukeraketa zuzenaren bidez izendatzen diren zortzi burukidee-

HIZ
PI
deak

Pello Urzelai
pellour@berria.info

tatik, ziurrenik, bik bakarrik jarraituko dute zuzendaritzan. Joseba Aurrekoetxeak eta Jose Maria Zaibidegoitiak. Beste seiak berriak izango dira. Horietako batzuk, gainera, belaunaldi berri baten isla. Dena den, zuzendaritza berriak ze norabidea hartuko duen da garrantzitsua eta argitu beharrekoa. Aurrekoaren jarraipen hutsa egingo duen edo norabide berria hartuko duen edota jokamoldez aldatuko duen. Pertsonak aldatu arren, antza, baina oreka antzera jarraituko baitu (Urkulluren gertukoak nagusi).

Azken hilabeteetan, eta bereziki Imazek albo batera gelditzeke erabakia jakinarazi zuenetik, EAJren lidergoa apaldu da. Batetik, behin-behineko zuzendaritza izateak eraginda. Bestetik, ibarretxe lehendakariak eta bere bide orriak hartutako protagonismoaren ondorioz. Argi dago EAJK ziklo berriaren lidergo nagusia Ibarretxeren esku utziko duela. Argitzeke dago zein helbururekin. Zeren eta, adibidez, ezker abertzalearen kontrako presio politzialak (presoen ongi etorriak debekatu eta jazartzera ino) zalantza sortarazten baititu bide orriaren azken helburuaz.



Hitz beste

Anjel Lertxundi

Lizunak


Lotsa pixka bat duenak ez du bere irabazien erronkarik jotzen. Diskrezioa da urrezko araua, arrunkeria handiko harropuztat daukagu bere diruen nondik norakoak aieratzen ibiltzen dena. Hala da legea gizaki naturalen bizitzan. Bankuak dira gustu oneko jokabide horren langa hankartetik pasatzen duten bakarrak. Herenegun Kutxa bazen auskalo zenbateko onurak izan zituen, atzo Santander izan zen banku txiki baten espekulazioarekin inor zorabiatzeko moduko irabaziak lortu zituen.

Lizunkeria totala.

Zifrok muturrera botatzen dizkiguten aldiro mehatxu egiten digute eta beidurra partitzen. Habi tentu, nire atzaparretan hago. Eta zu rea ez den banku batean 300 euro ateratzeagatik 12 euro kobratu nahi badizkizute—joan zen asteburuan sekulako sustoa hartu nuen—, bi aukera dituzu: izorratu ala eskatzen dizutena ordaindu. Badago hirugarren bide bat ere, baina kartzelara darama. Ez bankua, zu baizik.

Montxo

Behobia-Donostia



Putzuaren zolatik

Jose Luis Alvarez Enparantza,
Txillardegí

Idazlea

Alde batetik, laburki bederen, eta Hego Euskal Herriari dagokionez, hauxe da lege egoera 1978ko Espainiako Konstituzioak agintzen duenez:

Art. 8.1 - *Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejército de Tierra, la Armada, y el Ejército del Aire, tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional.*

Abertzaletasuna, beraz, helburutzat Euskal Herriaren independentzia duenez, ilegala da.

Art. 1.2 - *La soberanía nacional reside en el pueblo español, del que emanan los poderes del Estado.*

Euskal Herria, abertzaletasunaren aldetik, espainiar herriaren

atala ez denez, ez da eskubide subjektua.

Art. 2 - *La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles.*

Abertzaletasuna, euskal Nazioa eta Aberrri aldarrikatzen dituenaz, ilegala da berritoe.

Art. 3.1 - *El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerlo y el derecho a usarlo.*

Simetrikoki, hau aldarrikatzen du abertzaletasunak: «euskotar guztiak jakin behar dute euskaraz, eta erabiltzeko eskubidea izan».

Eta hau ere, aurreko artikulua-erikiko kontraesanean dagoenez, ilegala da.

Eta bestetik, gogora dezagun orain Nazioarteko Eskubidea.

Hona hemen 1966ko Abenduaren 16an Nazio Batuen Erakundeak aldarrikatu zituen bi Itun Internazionalak. Oinarri juridiko hori inoren kontrako boterik gabe

onartu baitzen; aldeko botoen kopurua, aldiz, 106 izaki.

Bi Itun ospetsuotako lehenengo artikulua, biotan bera, hau dio: Herriek oro dute Autodeterminazio Eskubidea. Hau dela bide, beren harreman politikoak inolako mugarik gabe finkatzen dituzte; eta bide beretik beren hazkunde ekonomikoa, soziala eta kulturala nahi bezala erabakitzen.

Horra hor taika gunea. 1978ko Konstituzioak eta 1966ko Itun Internazionalak elkar ukatzen dutelako.

Hots, egunotan hedatu den berria: «Ibarretxe Lehendakariak erantzun beharko du aurki akusatuen aulkian, espainiar zerbitzuko judikatutarak horrela erabakirik».

Zeren-eta ez baitiote gauza bat barkatzen Ibarretxeri: bere «proyecto secesionista» aurrera eramateko deliberoa.

Ibarretxe epaitua. Hauxe da espainiar ultra-nazionalistek aspaldixko honetan eskatzen zutena.

Rodolfo Ares eta Pachi Lopez psoezialistak ere epaiketa berean agertzeak ez du inor gezurtaritzen: nekez ikusiko ditugu kartzelan.

Epaiketa berean dauden Bata-suneko lau, aldiz, preso daude Jadanik: Arnaldo Otegi, Juan Jose Petrikorena, Rufi Etxeberria, eta Olatz Dañobeitia. Eta lehenagotik, nahiz ez auzi berean, Juan Mari Olanoren eta Joseba Alvarez burukide ezagunak daude, hauek ere preso.

Orain eta hemen alboan uzten ditugula ehunka preso abertzaleak.

Horra hor zertan gauden.

Behin eta berriz eskaintzen den aitzakia, bera da: ETA-Batasunarekiko harremana. Bestela, sinets arazi nahi digutenez, arazorik ez legoke.

Ibarretxeren hoben barkagaitza Ezker Abertzalearekiko harremana da.

Honek eta ez bestek zornatzen omen ditu denak, eta epaiketa guztiak zilegi egiten.

Abertzaletasunak, ordea, urte mordoan eragin du euskal munduan; eta urte mordo berean egin du taika espainiar legetasunarekin.

ETA 1968an sortu zen. Lehenagoko urteetan zer, beraz? Uso zuria nagusi? Zertan mamitu zen harreman baketsu demokratikoa?

1966ko gerratekoan ikusi genuen garbi. Orduan ez zegoen ETA.

Baina gure aurkako amorruak gailendurik, Euskal Herriaren etsaiek milaka abertzale hil zituzten, 16 apaiz barne. Eta ondoko 40 urte luzez zanpaketa faxista gupidagabea jasan genuen.

Erregionalistek, PNV aurrenik, poto egin zuten.

Baina belaunaldi abertzale berriak (urteetan barrena Ezker Abertzalea sortu zuenak) aurre egin zion, eta egiten dio, espainiar olde erasokorri.

Egun hauetantxe ikusi dugu ezin garbikiago.

UEMAren alorrean muzin egin dio euskararen defentsari PNVk. Imaz-Urkullu bikoteak ez du ezkutetzen neo-estatutismotik abiatzeko proiektua. Eta Estatuko Aurrekontuen eztabaidan erakutsi dutenez, ERC eta beste abertzaletasunarekin egin dute bat.

Larriegia da hau guztia garbi ez hitz egiteko.